

2007KO IRAILAREN 18AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA:Hemezortzia

HILABETEA: Iraila

URTEA: Bi mila eta zazpi

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Jon Kortaberria Lasa
Fernando Boada González
Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Begoña Lasa Royuela

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2007ko uztailaren 25eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute, berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- KONTSULTORETZA ETA AHOLKULARITZA EMATEKO KONTRATUA.

Alkateak proposatu du, Beasaingo udalari hirigintza asistentzia emateko profesional bat edo lantalde tekniko kualifikatu bat kontratatzea eta horretarako baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea, ondorengo xehetasunekin:

1.- Xedea: Beasaingo udalari hirigintza asistentzia emateko profesional bat edo lantalde tekniko kualifikatu bat kontratatzea.

2.- Kontratatzeko era eta prozedura: Lehiaketa irekia.eta prozedura arrunta.

3.- Lizitazio prezioa:

- Hirigintzako aholkularitzan, 2007rako erreferentziazko ordainsarien taula, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren Ohiko Batzar Nagusiak onartua, Iruñean, 2006-12-22an.
- Plangintza orokorrean eta garapeneko, kudeaketako eta hirigintzako plangintzan, berriz, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak Gasteizen, 2006ko apirilaren 25ean egin zuen Gobernu Batzarrak onarturiko ordainsari profesionalen baremoak.
- Eraikuntzako proiektuetan, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak Bilbon 2005eko ekainaren 28an egin zuen Gobernu Batzarrean onarturiko ordainsari profesionalen baremoak.

Kontratuaren prezioan sartzen direla ulertzen da zerga eta gastu guztiak (baita lizitazio gastuak ere), BEZ barne, baita dietak eta lekualdatze gastuak ere.

4.- Espedientea: baldintza plegu administratiboa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoan.

5.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %4a.

6.- Egikaritze epea:4 urte.

7.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 20 lanegunetan.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo lanegunean 13:00etan. Larunbata tokatuko balitz, hurrengo lanegunera pasatuko da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerek Baldintza Administratiboen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Fernando Boada jaunak adierazi du abstenitu egingo dela, pleguan jasotzen den aipamen honekin ados ez dagoelako: "Esleipendunak ez du bere lanbidea kontratua egiten duen udalerraren jurisdikzioan burutu behar. Hala ere, eskumena izango du

dokumentu hauen idazketa kontratatzeko prozeduretan parte hartzeko: plangintza orokorra eta garapena, baita Administrazioak edo erakunde publikoek edo gehieneko kapitala publikoa duten Sozietateek sustaturiko hiri eraikuntzen proiektuak.”

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ, EA, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 1 (PSE-EE/PSOE)
Etorri gabea: 1 (EB)

Beraz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- KONTRATUA LUZATZEA. Ludoteka eta gaztegune zerbitzua emateko kontratua luzatzea.

2006ko irailaren 13an egindako Gobernu Batzordeak erabaki zuen Maialen Hernandez Irastorza eta Eider Garmendia Urretabizkaia, PUXTARRI AISI TALDEA osatzen duen ondasun erkidegoari, Berritxu eta Txelotxe ludoteka eta gaztegune zerbitzuen kudeaketa esleitzea. Emakida lau urtetarako egin bazen ere, 2006ko irailaren 15ean kontratua urtebeterako sinatu zuen.

2007ko irailaren 12ko datarekin euskarazko teknikariak beste urte bete kontratua luzatzeko aldeko txostena egin du.

Horren ondorioz, aho batez erabaki da, Berritxu eta Txelotxe ludoteka eta gaztegune zerbitzua emateko kontratua beste urte batetarako luzatzea. Kontratuaren iraupenea 2007ko irailaren 15etik 2008ko ekainaren 30era artekoa izango da eta ordaindu beharreko prezioa 74.950,71 €koa izango da.

4.- ONDAREZKO ERANTZUKIZUN ERREKLAMAZIOA

Ezagutzera eman da, Kale Nagusia, 32ko bizilagunek eskatutako ondarezko erreklamazioaren prozedura administrazio-bidean bukatzeaz dagoela. Azkeneko momentuan bizilagun batek berak eskatzen duenarekiko agiri batzuk aurkeztu ditu eta aztertu ondoren ontzat ematen badira berriro ere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari txostena emateko eskatu beharko zaio eta hau izandakoan azken erabakia hartu eta erantzungo zaie.

5.- GAI HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA

- Arau Subsidiarioak

Ezagutzera eman da, Arau Subsidiarioetako Testu Bateratuan funtsezkoak ez diren akats batzuk sumatu direla eta zuzendu egin direla. Akats zuzenketa hori datorren asteko Plenoan onartu egin beharko da eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidali, Testu Bateratuari behin betiko onespina eman diezaion.

Aldi berean, ordenantzetako hainbat artikulutan egindako aldaketak, abuztuan jendaurrean jarri ziren, Foru Aldundiak hala eskatuta. Alegazioak aurkezteko epea 2007ko irailaren 29an amaitzen da. Alegazioak izaten badira Plenoari dagokio hauek ebaztea.

- Auzoetako Egitasmo Berezia

Egitasmo honek dituen ardatzen aurkezpena hirigintza batzordean egin zen eta orain auzoetako bizilagunei aurkeztuko zaie. Dokumentua prest dagoenean hasierako onespina emango zaio. Alkateak du horretarako eskuduntza.

- 24 Area (Antzizar). Hitzarmen-batzarrean parte hartzea.

Hirigintza Batzordeak proposatuta erabaki da, 24 Area (Antzizar). Hitzarmen-batzarrean parte hartzea, Udalak area horretan jabeagoak dituelako. Bestalde adierazi, area horretako jabe guztiak bilera batetara deituko direla, adierazteko area horrek eskatzen duen garapen dokumentua nahiko berezia dela eta bertan jaso behar diren xehetasunak denon artean adostea komeniko litzatekeela.

- Osasun Zentroa. Erauzteko izapideak

Ezagutzera eman da Osasun Zentro zaharra, Gizarte Segurantzako Altxortegi Orokorrarena dela eta idatzia bidali zaiola eskatuz bai terrena eta baita eraikina ere Udalarari itzultzeko. Orduan egin beharko litzateke erauzketa.

- Manufacturas Olanan eta 8. Sektorea.

Ezagutzera eman da, Manufacturas_Olanan, hasiera batean 8. Sektorean trenbidearen ondoan dagoen lursailean kokatu behar bazen ere, lur horren jabeak ADIFekin duen kontentziosoa dela eta, jabe horrek berak eskaini diola,

Sasietako baskula dagoen aldean kokatzea, baina oraindik ezer ez dutela adostu.

- Anbulatorioko biribilgunea

Foru Aldundiak egindako proiektua hirigintza batzordean azalduko da. Dena dela proiektu hori burutzeko, ambulatorio zaharra bota beharrean dago.

- Suministros Loinaz-etik N-1 errepiderako irtenbidea

Foru Aldundiarekin negoziazioak daude Suministros Loinaz-en parean dagoen gasolindegiraino azpitik pasabide bat egiteko Donostiarantz joan ahal izateko. Aldi berean gasolindegi horren alboan zabalkuntza bat egitea ere proposatzen da kamioiak aparkatu ahal izateko.

- Dulce M^a Loinatz-en egin beharreko babes ofizialeko etxebizitzak

Alkateak esan du, babes ofizialeko etxebizitzak oraindik ez direla eraikitzen hasi, Iberdrolarena den poste bat bertan dagoelako eta kendu egin behar delako. Badirudi Iberdrolak lan hori egitea kontratista bati enkargatu diola.

- Dolarea. Oinarrizko proiektuaren aldaketa.

Oinarrizko proiektua aldatu egin da, sotoa beste era batean aurreikusi delako. Udalbatza Osoak erabakitako esleipena lehengo proiektuaren arabera egin zenez, aldaketa hori onartzea Plenoari dagokio.

- Ordenantza fiskalak. 2008. urteko tarifak.

ZERGAK:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga:

%60ko hobaria familia ugarietarako: hobariaz gozatu ahal izateko gehiengo balio katastralaren eguneratzea.

- Ibilgailuen gaineko Zerga: %2,3ko igoera

- J.E.Z.: %2,3ko igoera.

- Eraikuntzen gaineko Zerga:

1963 urtean eraikitako etxebizitzetan egiten diren obre %2ko tipoa aplikatzearen aldeko proposamena.

%95eko hobaria igogailua jartzeko obren ondoriozko eraikuntzaren gaineko zerga (ez da aplikagarria izango etxebitza berrien kasuan).

ZERBITZUAK EMATEAGATIK EDOTA UDAL JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASAK

%2,3ko igoera. Ondorengo tasetan izan ezik:

- Garabia zerbitzua: Eguneratzea zerbitzua ematen duen enpresak aplikatzen duen igoeraren arabera egiten da.

Zabor-tasa onartzea ez da oraindik proposatuko, Sasieta zabortegian garbigunea egiteak eta Kontsorzioan sartzeak ekarriko duen igoera oraindik ez delako zehaztu.

Hobariak: Hazienda Batzordeak, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan ondorengoei %95eko hobaria ematea proposatzen du: Elizari, La Salle ikastetxea eta Loinazpe ikastetxea.

- Administrari poltsa sortzeko prozesuaren emaitza.

Bai LANGAI eta bai INEMri 15 pertsona aurkezteko eskatu zitzairen. Frogak eginda gero 9 pertsona gelditu dira eta bajagatik lanpostu hauei dagozkien ordezkapenak egin dira:

1. Kulturako dinamizatzailea.
2. Pertsonaleko administraria.
3. Ekonomia arloko administraria.
4. Hirigintzako administraria.
5. Alkatearen idazkaria

- Gazteriako Teknikaria. Lanpostuaren profila

Alkateak dio gazteriako teknikari plaza sortu behar dela eta horretarako lanpostu horrek izango lituzkeen funtzioak jasotzen duen dokumentua prestatu eta Gobernu Batzordeko kideei banatu zaie aztertu dezaten.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.